



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urriaren 5a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lan-eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrezan eta errealitatearen arabera izan dena. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroak Foruaren Hobekuntzan esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoan izandako murrizketak egiaz atzera botatzeko plan bat ezar dezan, epe eta guzti. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitatekoen bestelako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Kataluniako maniobra sezesionistak, eta Kataluniako herritarrekin ordenamendu instituzional eta juridiko bat bera partekatzen jarraitzeko bere borondatea adierazten du. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Arauek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikuluek garatzekoak (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Poliziei Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak. Proiektu hori 2017ko apirilaren 26ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 128.5 artikuluari jarraikiz, osoko zuzenketak dira foru lege proiektuaren egokitasunari, printzipioei edo oinarriei buruzkoak.

Honako zuzenketa hau oinarritzen da halako zuzenketak aurkezteko izan daitezkeen zio gutzietan.

Lege proiektua une honetan aurkeztearen egokitasunari dagokionez. Gure ustez, ez dago behar bezala justifikatutako arrazoirik lege proiektua halako presarekin eta itxuraz epe jakin bat bete zeko betebeharrarekin aurkezteko. Izan ere, aurkezteko lege-betebeharririk egon ez dago. Nafarroako Gobernua da betebeharrak hori sortu duena, eta, horretarako, urriaren 27ko 184/2016 Foru Agindua eta Barneko Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 25eko 568/2016 Ebazpena eman zituen erabaki horren estaldura gisa. Legezko agindu bakarra zen 15/2015 Foru Legearen azken xedapenetako lehenak emandakoa, zeinaren arabera bi urteko epea ezartzen baita tokiko poliziei buruzko lege bat taxutzeko.

Hala, agindu hori baliatu zen, bai eta toki entitateek hertsiki tokiko poliziei buruzkoa den lege bat onesteari emandako ezezkoa ere –horrek kontrako jarrerak beren gain hartu behar izateko

arriak baitzekarkien–, ezarritako joko-arauak aldatzeko lege berri bat prestatu eta, hala, ardurak Gobernuarekin banatzeko, herri bakoitzean araubide berriarekiko desadostasunak izanez gero.

Lege honen bidez ez dira aldatu nahi izan kontraesana sortzen zuten 8/2007 Legearen alderdiak; aldiz, araubide erabat berria ezarri nahi izan da, batez ere Nafarroako polizietako kideen lan baldintzak ezartzeari dagokionez, eta lan baldintza horiek okertu egin dira.

Horregatik aurkeztu diogu osoko zuzenketa proiektu honi, ez gatozelako bat ez haren oinarriekin ez eta printzipioekin ere.

Hasieratik da norabiderik gabeko proiektua, haren jatorria ez zelako gaur Parlamentura ekarritako aldaketa, eta haren garapenean ez direlako zaindu gobernu on bat ezaugarritu behar duten printzipioak, zeinak baitira, besteak beste, hark ukitzen duen alderdia kontuan hartzea proiektua prestatzean; finean, zerbitzuaren emaile diren langileak kontuan hartzea:

Gauza bat da negoziazio baten itxurak egiten saiatzea, nahiz eta hori ere ez den lortu, erakunde desberdinen babesa bilatu den arren –gogora dezagun Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren atxikimendu-gutuna–, eta beste bat, guttiz desberdina, da egiazko negoziazio bat, halakorik ez baita izan.

Aurkeztutako proiektuaren oinarria da polizia-eredu berri baterako beharrezkotzat jotzen den aldaketa bat; izan ere, ustez foru polizia integral eta erreferentziatzeko bat izatera iritsiko bada, polizia-ereduak malgutasunean, berehalakotasunean eta polizia-langileen prestasunean oinarritu behar du.

Hala ere, orain arte ez dugu polizia-eredu zehaztu bat; aldiz, dugun bakarra da balizko hiru agertoki eskaintzen dituen plan zuzendari bat, hiru urteko epean polizia integral bat aurkezten duena,

inongo definizio, baliabide eta oinarririk gabeko emaitza gisa. Ez du zehazten nola iritsiko den ezarritako polizia-kopurua izatera –lan eskaintza publikoen bidez, edo polizia kidegoen arteko pasabidearen bidez, edo bi aukera horiek erabilita–, ez eta nola antolatuko den sistema, gure erki-degoaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Halaber, ez da zehazten eskumen guztiak diren bere gain hartuko dituenak edo gehienak diren, ez eta noiz hasiko den eskumen horiek bere gain hartzen, zein unitatetan hartuko diren, negoziazioak jadanik hasi ote diren edota horien emaitza zein den.

Bestalde, ez da zehazten polizia kidego bakarra izanen den eta udaltzaingoak desagertuko diren, ez eta dena “segurtasun zerbitzu publikoa” izenpean bilduta geratuko ote den, bereizketarik gabe, beste alde batetik udaltzaingo horien izaeraren aldeko bultzada bat abian dagoenean. Ez dago argi ere zer eginkizun izanen duten edo mantenduko ote diren udal agenteak eta polizia-laguntzaileak, proiektu honen ondorioz nabarmen kaltetuak.

Laburbilduz, plan zuzendari honek ez du behar adinako anbiziorik halako muntako aldaketa justifikatzeko –hala izanda ere, ez luke justifikatuko langileen eskubideen murrizketan oinarritzen den edozein aldaketa–; izan ere, alde batetik kidegoen eginkizunak arautzen dira, kidego horiek bere horretan mantenduko ote diren ez badakigu ere, eta bestetik, plana ezerezean geratzen da bere horretan, ezinezkoa baita hain epe laburrean plana betetzea.

Proiektu honen muinari dagokionez, bai langileek bai PSN-PSOEek erabat arbuiatzen dutena da Nafarroako funtzio publikoaren estatutuaren esparrutik irtetea. Proiektuaren zehaztugabetasunaren aurrean, erreferentzia-esparru hori da Nafarroako polizia kidegoetako langileen eskubideei eusteko berme bakarra. Lege honekin egin nahi dena da poliziari estatutu bereki bat eman, baina ez eskubideak bermatzeko, berezitasunak arautzeko edota kidegoaren ezaugarriek berekin dakartzaten gabeziak betetzeko. Malgutasunaren eta polizia-eginkizunaren berezitasunaren izenpean egin nahi dena da foruzaingoaren beraren egiturazko gabezia den giza baliabiderik eza estali.

Hainbeste desiratutako Foruzaingo integral eta erreferentziazkoak oinarritzko oztopo bat du, eta da horretarako iristeko behar adina langilerik ez izatea.

Lege honen bidez, langile gabezia hori aitoritzen den arren, egin nahi dena da langileek lan bikoitza egitea. Eta hori ezinezkoa da, langile

horientzat lan baldintza duinak mantendu nahi badira; are gehiago, kontuan hartzen badugu plantillaren batez besteko adina handia dela jadanik.

Lege honekin, Gobernuak helburu hori lortzeko biderik errazena bilatu du, baina ez goresgarriena, bere burua sozialtzat daukan gobernu batentzat. Bide hori da eskuineko gobernuak hautatu ohi dutena, langileek urteetako borroka sindikalari esker lortutako eskubideei eraso egitearena, bere interesen esanetara dauden tresna soiltzat baitaizka.

PSN-PSOEek lege hau arbuiatzen du ez gatzelako bat haren oinarriarekin; izan ere, langileak bere esanetara dauden zenbaki despersonalizatutzat hartzen ditu.

Legearen oinarria da poliziak horixe besterik ez direla: poliziak, eguneko hogeita lau orduetan eta urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetan, eta beren lana erabateko malgutasunarekin eta enpresarekiko prestasunarekin egin behar dutela (kontuan hartuta, gainera, Administrazioa bera dela enpresa hori).

Xede hori lortzeko, polizien eskubideak murrizten dira, lan orduak gehitzen zaizkie, Administrazioak nahierara erabil ditzakeen zenbait lanaldi ezartzen dira, eta poliziei zenbait osagarri kentzen zaizkie.

Horretarako, saiatzen dira herritarrei sine-tsarazten polizia-lana pribilegio bat zela orain arte, poliziek 2,8 egunez soilik egiten dutela lan, eta osagarri asko kobratzen dituztela betetzen ez dituzten lanengatik.

Eta hori guztia ez da egia. Gure polizia kidegoetako langileek, foruzaingokoek eta udaltzaingoetakoek, Foru Administrazioko gainerako langileek duten urteko lanaldi bera dute eta horiek dituzten osagarri berberak dituzte aitortuta, negoziatorako mahai sektorial bakoitzean Administrazioako langile-talde bakoitzak lortu dituen sindikatu-akordioekin batera.

Langileen lan baldintzak arautzen dituen puntu bakoitza xeheki azter genezake: txandakako lanagatik ordu-konpentsazioa kentzea, txandakako lanagatik osagarria kentzea (orain arte, gainerako funtzionarioentzat bezala aplikatzen ziren biak), ad hoc osagarriak sortzea ordainsari handiekin, enplegu bereko lanpostuen eta enplegu desberdinen arteko ordainsari-aldeak ezabatzea... Baita beste batzuk ere.

Baina ez dugu horien azterketarik gaingiroki egin nahi; izan ere, uste dugu alderdi horiek ez direla esparru honetan eztabaidatu behar, nego-

ziazio kolektiboaren esparruan baizik, azkenean horretara behartzen ez bagaituzte behintzat. Gure ustez, hori da negoziazioa abiatzeko gunea, eta ez legebiltzar hau.

Eta hala, zuzenketa hau horretarako ere aurkezten dugu; hain zuzen, lan esparruko erabakiak bi aldeen arteko negoziazioaren esparruan kokatzeko.

Foru lege proiektu hau Parlamentura iritsi da eragiten dien eragile sozial guztien arbuioarekin.

Horrek erakusten du, alde batetik, Gobernuak ez duela inongo borondaterik negoziatzeko, eta, bestetik, hutsegiteak aitortzeko eta horiek zuzentzen ahalegintzeko gaitasunik ez duela. Gobernuak, jarrera eta gaitasun falta horrekin, egiten duena da berari dagokion ardura Parlamentuari leporatu, eta, hala, legebiltzarra berriro bihurtzea funtzionarioen lan baldintzen negoziatorako oinarritzko esparru. Horixe bera gertatu da duela gutxi 15/2015 Legearekin; izan ere, UPNren gobernua- ren jardura-ezagatik, egoitza honetan negoziatu behar izan zen, eta, akatsek ikasteko balio behar- ko balute ere, berriro geratu da lege honekin.

Guk hori eskarmentuaren bidez badakigu, eta uste dugu Parlamentuak ez duela izan behar horretarako egoitza. Hona iristen diren legeek dagokien esparruan luze-zabal negoziaturiko lan baldintzak jaso beharko lituzkete, eta hemen parlamentariok horien gainean hitz egin beharko genuke, betiere gutxienez eta esparru orokortzat ditugun lan baldintza batzuekiko errespetuarekin.

Proiektu honekin, esan ahal zaigu jadanik esparrua ezartzen dela eta baldintza partikularrak ondoren negoziatuko direla. Halaber, PSN-PSOE ez dator bat aurretiazko esparru horrekin, iruditzen baitzaigu langileen eskubideen aurkakoa dela, berariazko estatutu baten arauketan oinarritzen baita, zeinari buruz gero ez baitu ezer ezartzen; printzipioa ezarri besterik ez du egiten, halatan saihestu ahal izatearren Nafarroako funtzio publi- koan funtzionarioen eskubideen bermetzat har- tzen den hori –gero berariazko araudian garatzen dira eskubide horiek–.

Hemen alderantziz egiten da: ez dakitenez berme horiek nola saihestu, egiten den gauza bakarra da estatutu desberdin bat sortu, horri buruz ezer gehiagorik esan gabe, soilik balio duena osagarri batzuk sortzeko eta beste batzuk ezabatuzko, eta Gobernuari beste inori ez dago- kion erregelamendugintza-boterearen esku uzten da estatutu horren mugen zehaztapena. Gure ustez, hori arriskutsua da, beti egonen delako kasuko Gobernuaren esku, mugak ezartzea bera-

riazko negoziazioa behar duten langileen eskubi- deei dagokienez.

Horri buruz, ezinbestean aipatu behar ditugu udaltzainak. Horien gehiengoa ere lege honen aurka dago; izan ere, ikusten dute haiei aplikagarri izanen zaizkiela udal bakoitzean haien lan eskubi- deei buruz lortzen diren hitzarmenak, baina udal bakoitzaren esku geratzen da hitzarmenak ezar- tzea ala ez, eta, halakorik ezean, proiektu hau aplikatuko zaie, eta horrek dakar aipatu dugun eraso bera eginen zaiela negoziazio bidez lortu dituzten eskubideei.

Eta gauza bera esan dezakegu udal agenteei eta laguntzaileei dagokienez, haien lana ez baita ez hobetzen, ez arautzen, ezta, gutxienez, aitort- zen ere. Beti izan dira kaltetu nagusiak; izan ere, udaletan lan ordainezina egiten badute ere, lege honekin ez dute irtenbiderik ikusten, ezta paira- tzen duten egoera hobetzeko asmorik ere.

Ezin dugu aipatu gabe utzi diziplina-araubidea- ren aldaketa, non zenbait tipo zorrotzu egin baiti- ra, horretarako berariazko arrazoirik gabe.

Lanbide guztiek izan behar dute diziplina-ara- ubide bat, non tipoak beren eginkizunetara egoki- tzen diren, eta gerta daitezkeen kasu guztiak aurreikusten diren, baina sinestera iritsi gabe ezen polizia lanak, beste edozein lan bezala fina izan behar badu ere, arrazoizkoa denaz haragoko zalantza bat merezi duenik.

Foruzainak dira Nafarroako Gobernuko fun- tzionarioen artean espediente gehien irekita dituz- tenak. Horrek pentsarazten digu ez direla arau- hauste gehien egiten dituztenak –guk ez dugu halakorik sinesten–, baizik eta beren jarduketan ondorioak zorrotzenik araututa dituztenak direla, eta horrenbestez, edozein jarduketarengatik zeha- tuak izateko beldurrak eragin kaltegarria du haien lanaren autonomian.

Horrekin ez dugu esan nahi jarduketa bat, zuzena ez bada, zehatu behar ez denik, baizik eta gehiegizko zorrotzaren berarekin dakarrela berehalako jarduketetan esperientziak eman ohi duen jakintzaren arabera erabakiak hartzea ez direla ausartzen, zehapenaren beldur, batzuetan iristen ez den nagusiaren agindurik ezean.

Lege honetan Administrazioak bere boterea handitu du zehapen-ahalmenari dagokionez, arau- hauste arinak (gehienak) ikertzeko epea luzatzen baita. Hala, bere ahalmena baliatzen du zehatua- ren ziurtasun juridikoa murrizteko. Duela gutxi esan zuen legegari batek preskripzio-epeak legee- tan beti ezartzen direla boterea duenaren mese- detan (kasu honetan, Gobernuarenean), beste

aldearen kaltetan. Gure ustez, gai honek merezi du hausnarketa bat, gutxienez.

Gobernu honek itxuraz duen eta herritarrei transmititzen dien polizia-jarduerarekiko mesfidantza hori lege honetan islatzen da, polizia-jardueraren fiskalizaziorako kanpoko organo bat sortzen baitu, eta, hala, jada badauden kontrol mekanismoak bikoiztu egiten baititu, herritarrek polizia-lanean izan beharreko parte-hartzearen argudioarekin. Herritarren parte-hartzea ona da, baina legean halako organo bat sortuta egiten dena da, gure ustez, herritarrenganitzea haien segurtasuna eginkizun nagusizat duten langile batzuekiko mesfidantza. Herritarrek oso argi dute zeintzuk diren beren eskubideak edozein funtzionariok bere jardunean egindako gehiegikerien aurrean, eta badira mekanismo egokiak horiei aurre egiteko eta zigorra jartzeko, halako organoak sortu gabe non, parte-hartzearen eta gardentasunaren izenean eginkizunak bikoiztu besterik ez duten egiten, horrek dakarren efizientzia galerarekin.

Horregatik guztiatik osoko zuzenketa hau aurkeztu diogu Gobernuak aurkeztutako lege proiektu honi, ez gatozelako bat ez bere oinarriekin ez zioekin:

- Uste dugulako halako garrantzia duen lege bat Parlamentura iritsi baino lehen gutxieneko negoziazio bat izan behar dela legeak ukitutako pertsonekin.

- Uste dugulako Parlamentua ez dela Gobernuaren gaitasun falta ordezteko tokia.

- Gobernu honi sostengua ematen dioten alderdiek ez dutelako izan behar haren akatsen zuritzaile.

- Alderdi horiek izan beharko luketelako lehenak beren gehiengo erabiltzen zertarako eta zentzugabekeria hau saihesteko eta orobat saihesteko kaltetu guztiek lege honen aurka egin dituzten manifestazio guztiak, Parlamentu hau bihurtu dutenak ezein Parlamentu inoiz izan behar ez duen horren egoitza.

Eskatzen dugu zuzenketa honen alde bozkartzea eta lege hau Gobernuari itzultzea, polizia-sindikatu guztiekiko negoziazio bati ekin diezaion eta beste bat aurkez dezan, behar adinako sostengua eta negoziazioak izanen dituen gutxi aintzat hartu ahal izateko.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioen azalpena

Nafarroako poliziek araudi berri bat behar dute, egonkortasuna emanen diena eta gure erkidegoan bultzatu nahi den polizia-eredua gauzatu eta zehaztuko duena.

Kudeaketa eta antolamendu arloko arazoak, zeinak batik bat 2015eko legearen aplikaziotik heldu baitira, Foruzaingoren kalterako izan dira, eta arazo larri bihurtu dira zenbait polizia-zerbitzuren prestazioari begira.

Legebiltzarrak aztertu beharreko lege proiektu honek, Nafarroako poliziek –bereziki, Foruzaingok– dauzkaten kudeaketa eta antolamendu arloko arazoak konpontzeko tresna bat ez izateaz gain, arazo horiek areagotu egiten ditu.

Ez dauka polizia-eredurik eta, hartara, aukera paregabea galtzen du, zehazteko ea Foruzaingok zer eskumen eduki behar dituen eta zeintzuk lortu nahi diren eta tokiko poliziek zer tamaina eta eskumen eduki behar duten.

Gainera, Gobernuaren inposizio bezala aurkeztu da, eta auzi honek, ahobatezkotasun ez bada ere, adostasun handia behar du, Nafarroako poliziei egonkortasuna eta ziurtasunak eman ahal izateko. Baina ez da hori izan ez Gobernuaren ez, bereziki, Barne Departamentuko kontseilari Beaumont andrearen jarrera. Lege honek akordio politikoari bizkarra ematen dio.

Eta poliziei bizkarra emanez egiten da, ez baita bilatu horiekiko akordiorik azken unera arte, eta lortu nahi izan dena Gobernuaren proiektuari baiezkoa ematea izan da, ezen ez lege honek arautu beharko lituzkeen gai garrantzitsuak jorratzea. Hori dela-eta, Foruzaingoko sindikatuak eta tokiko polizietakoak proiektu honen aurka daude gaur-gaurkoz.

Gainera, lege honek linboan uzten du udal agenteen figura; izan ere, ez dira tokiko poliziak, eta horrenbestez ez dira Nafarroako polizien kidegoan sartzen, baina polizien akademia berean eta denbora berean jaso dute prestakuntza.

Arestian azaldutako guztiatik, talde parlamentario honek foru lege proiektu hau Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioak: Nafarroako Gobernuak, negoziatzeko batere borondaterik gabe, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua aurkeztu zuen Parlamentuan, eta Foruzaingoko sindikatu, udaltzain, tokiko polizia eta polizia-laguntzaile guztiak daude horren aurka.

Ezin da Legebiltzarrera ekarri lege proiektu bat baldin eta ukitutako pertsona guztiak aurka baditu eta, negoziatzeko batere borondaterik gabe, proiektua alderdi politikoen esku utzi. Bere garaian esan zen zuzenketa izapidea atzeratzen zela, hain zuzen ere, akordioetara iristen saiatzeko.

Nafarroako Alderdi Popularrak negoziazio mahai bat eratzea eskatu zuen, Nafarroako Gobernuak, talde parlamentarioek eta sindikatuek elkarrekin lan egin ahal izateko halako moduan non Poliziei buruzko legerik onena egingen baitzen denen artean.

Ia bi hilabete joan dira, ez da negoziatorik izan, eta Nafarroako Gobernuak adierazi du proiektua bere horretan uzteko asmoa duela; horrenbestez, beharrezkoa ikusten dugu osoko zuzenketa hau aurkeztea proiektua Gobernuari itzul dakion, ukitutako alde guztien itxaropenak egiaz asebeteko dituen Nafarroako poliziei buruzko beste foru lege bat jorrazteko geroago.

4. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, osoko zuzenketa aurkezten diogu Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektuari, eta horren bidez Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen dugu.

Zioak: Nafarroako Gobernuak Parlamentura igorri duen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektuak foruzainen eskubideak eta lan-baldintzak ukitzen dituzten xedapenak ditu.

Halere, Nafarroako Gobernuak eta Foruzaingoko sindikatuek ez dute adostu negoziazio kolektiboaren esparrukoa den inolako punturik proiektuaren artikuluetan jasotako artean, baztertu egin baitzen Foruzaingoko sindikatuak planteatutako behin betiko proposamena.

Gogorarazi beharra dago negoziatzeko prest agertu ziren Foruzaingoko bi sindikatuen erantzunak beren afiliatuen babesa jaso zuela bozketa bidez. Eta Foruzaingoko gainerako sindikatuak lege proiektuaren aurka daude oraindik ere.

Gure ustez, beharrezkoa da foruzainen eskubideak eta lan-baldintzak ukitzen dituzten eduki horiek langile-kolektibo horren ordezkari legitimoen behar adinako babesa edukitzea.

Tokiko polizien kasuan, gehiengo sindikala alde agertu zen, zenbait errebindikazio historikoren gaineko akordioa lortzearen baldintzapean, baina proiektuak ez du azkenean halakorik jaso.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lan-
eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren
beharrizanen eta errealitatearen arabera izanen dena.**

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lan-
eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrizanen eta errealitatearen arabera izanen dena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Hezkuntza Departamentua premiatzen du lan-
eskaintza publiko bat egin dezan Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrizanen eta errealitatearen arabera izanen dena hezkuntzari,

hezkuntzari nahiz gizarteari dagokienez. Hezkuntza Departamentuak ahalik eta plaza gehien eskainiko ditu Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan.

2. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2017ko urriaren 31 baino lehen onets ditzan deialdi hori nahiz deialdiaren epeak.

3. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak arbuiatu egiten du deitzen diren oposizioetan “zerrenda bakarra” deritzona ezartzea, eta Hezkuntza Departamentua premiatzen du bide hori ezar ez dezan”.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroak Foruaren Hobekuntzan esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroak Foruaren Hobekuntzan esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroak Foruaren Hobekuntzaren 39.1 artikulua bidez jadanik esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan, zeinak baliatu izan baititu lehenago ere. Hortaz, Nafarroako Gobernua premiatzen du eskumen horien baliatzea berriro ere gauzatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu lehenbailehen ekin diezaioten, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziaketaren esparruan, Nafarroari espetxeen arloko eskumena transferitzearen auziari, Foruaren Hobekuntzaren 58.1.a) artikulua xedatu bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan nafarrak izan edo Nafarroan errotuta egon eta Nafarroatik kanpo zigorra betetzen ari diren berrehun bat presoak Iruñera ekarriak izan daitezkeen, baldin eta hori bada haien nahia, eskubide hori espetxe arloko legeriak berak aitortzen baitu. Halaber, Espainiako Gobernua premiatzen du Iruñeko espetxeko plaza-kopurua gehienez ere 500ekoa izatera mugatu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Iruñeko espetxearen gaineko eskumena duen heinean, behar adina giza baliabide eta baliabide material berma dezan, presoek banakako ziegak izan ditzaten, eta halaber irispideak, eskuera eduki litzaketan eremu eta jarduera guztietarako. Orobat premiatzen du behar adina langile esleitzen diezazkion, halatan horniturik egon ahal izan dadin gazteendako modulu batez, amandako beste batez, modulu terapeutiko batez eta emakumeendako modulu gokiago batez.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta administrazio eskudunak premiatzen ditu Hezkuntzaren eta Gizarte Ongizatearen arloan duten eskumena balia dezaten kalitatezko hezkuntza- eta gizarte-arreta emateko, askatasunaz gabeturiko pertsonen eskubide-berdintasuna bermatuko dena. Horretarako, beharrezko diagnostiko bat eginen dute, bai eta neurri zehatzak abiarazteko eta baliabideak esleitzeko plan bat ere, zeinak jasoko baititu, besteak beste, helduen hezkuntza sustatzeko laguntza ekonomikoak eta lanbide-nahiz unibertsitate-prestakuntzaren eskaintza.

6. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Espainiako Gobernuarekiko negoziaketak azkartu ditzan, espetxe arloko osasungintzaren eskumena bere gain hartzerantzko aurrerapausoak emateko, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, preso dauden pertsonen kalitatezko arreta eta jarraipena bermatze aldera, gainerako herritarren baldintza beretan. Horretarako, beharrezko diagnostiko bat eginen du, bai eta behar diren baliabideen aurreikuspen bat ere.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta kasuan kasuko toki entitateak premiatzen ditu behar diren neurriak har ditzaten, presoek eta preso ohiekin nahiz haien senitartekoei bizi-baldintza duinak emateko. Zehazki, honako arlo hauetan:

a) Baliabideak jartzea espetxerako irisgarritasuna bermatzeko, nolabaiteko garraiobide publikoren bat albat lasterren jarriz.

b) Behar diren lege-aldaketak eta -neurriak hartzea etxebizitzaren, errenta bermatuaren eta beste gizarte-prestazio batzuen arloan, espetxetik ateratzean eskatzen zaizkien errolatze-, egoitza- edo kotizazio-epeak frogatzeko zailtasunak dituzten pertsonen inguruabar eta beharrezko bereziei erantzuteko.

8. Nafarroako Parlamentuak adierazpen hau helaraziko die Espetxe Erakunde Zuzendaritza Nagusiari, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari, Iruñerriko Mankomunitateari eta Iruñeko Udalarari”.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoan izandako murrizketak egiaz atzera botatzeko plan bat ezar dezan, epe eta guzti.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoan izandako murrizketak egiaz atzera botatzeko plan bat ezar dezan, epe eta guzti”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du irakaskuntza publikoan izandako murrizketak egiaz atzera botatzeko plan bat ezar dezan, epe eta guzti, hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazioaren bidez; bereziki, irakasleen eskola-orduen kopuruari eta ratioak murrizteari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-

tzen du irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzen, baliabide gehiago jarriz eta honako antolamendu-neurriak aplikatuz:

– 2018ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan hezkuntzarako aurrekontua handitzea, baliabide material eta giza baliabide gehiago egon dadin.

– Irakaskuntza publikoaren hezkuntza-eskaintza handitzea.

– Eskolatzeara aldatzea, lehenetasuna emanez ikasleak titulartasun publikoko ikastetxeetan eta familien etxeetatik hurbilen dagoen ikastetxean eskolatzeari.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, Irakasleari Laguntzeko Zentroek pairatutako murrizketa drastikoak baino lehenagoko prestakuntza-jarduera berreskuratzeko”.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitatekoen bestelako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Carlos Gimeno Gurpegui jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitatekoen bestelako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko irailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzeko. Mozio hori 2017ko irailaren 15eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Kataluniako maniobra sezesionistak, eta Kataluniako herritarrekin ordenamendu instituzional eta juridiko bat bera partekatzen jarraitzeko bere borondatea adierazten du.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Kataluniako maniobra sezesionistak, eta Kataluniako herritarrekin ordenamendu instituzional eta juridiko bat bera partekatzen jarraitzeko bere borondatea adierazten du.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko irailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertua. Mozio hori 2017ko irailaren 22ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulak garatzekoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko irailaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak talde parlamentarioen eta foru parlamentarien esku jarriko dituen lokalen eta baliabide materialen oinarritzko araubidea ezartze aldera, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulak garatzeko arauak onestea, zeinen testua jarraian baitoa.

2. Mahaiaren honako erabaki hauek indargabetzea: 1995eko abenduaren 18koa, 2006ko ekainaren 12koa, 2007ko irailaren 24koa, 2008ko azaroaren 24koa, 2009ko abenduaren 30koa, 2015eko maiatzaren 20koa eta 2016ko maiatzaren 9koa.

3. Aipaturiko arauak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitaratu daitezkeen argintzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulak garatzeko arauak

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14.1 artikulak honako hau ezartzen du: "Foru parlamentarietako eskubidea dute lanean jarduteko behar duten laguntza zuzenean edo beren talde parlamentarioaren bidez jasotzeko. Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrek emanen diete, bereziki, argibideei eta dokumentazioari buruzko laguntza".

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. artikulak honako hau ezartzen du: "Parlamentuak, talde parlamentarioek beren eginkizunak bete ahal ditzaten, toki eta baliabide aski jarriko ditu haien esku. Hartara, diru-laguntza finko bat emanen die Parlamentuaren aurrekontuaren kargura, berdina guztientzat, eta beste bat, aldarra, talde bakoitzak duen parlamentari kopuruen arabera".

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulak garatzeko aldera –Legebiltzarrak talde parlamentarioen eta foru parlamentarien esku jarriko dituen lokalei eta baliabide materialei buruzkoak–, honako arau hauek ematen dira:

Lehena. Talde parlamentarioek eskueran izanen dituzte, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, Legebiltzarreko Mahaiak Eledunen Batzarrari entzun ondoren esleitzen dizkien lokalak.

Bigarrena. Talde parlamentarioek eskueran izanen dituzte bulegoak atontzeko gutxieneko altzari batzuk, Legebiltzarreko Mahaiak erabakiko dituenak, talde parlamentario bakoitzari entzun ondoren. Halaber, Parlamentuak emandako liburu eta argitalpen sorta bana egonen da bulegoetan.

Hirugarrena. Talde parlamentarioek honako baliabide informatiko hauek eduki ahal izanen dituzte:

- a) Eledunarendako ordenagailu konbentzional bat.
- b) Taldeari dagokion laguntzaile bakoitzarendako ordenagailu konbentzional bat.
- c) Inprimagailu nagusi bat.
- d) Funtzio anitzeko periferiko bat.
- e) Mahai gaineko teklatu bat taldea osatzen duen foru parlamentario bakoitzarentzat.
- f) Talde parlamentario bakoitzak, halaber, bi ordenagailu konbentzional eta bi inprimagailu osagarri eduki ahal izanen ditu.

Laugarrena. Talde parlamentarioek beren eginkizunetarako beharrezkoak diren telefono finakoak edukiko dituzte, eta Parlamentuak bere gain hartuko du horiek instalatzeak eta erabiltzeak dakarren gastua.

Bosgarrena. Talde parlamentarioek Parlamentuaren zerbitzuak (posta, fotokopiak) erabili ahal izanen dituzte soil-soilik Parlamentuan betetzen duten parlamentari-jarduerarekin zuzeneko

zerikusia duten kasuetan. Halaber, bestelako baliabide material batzuk ere emanen zaizkie – esate baterako, karpetak, bolalimak, oharrak, arkatzak, grapagailuak eta abar–, horretarako prestatutako eskabide-ereduan egiten dituzten eskaeren arabera.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak foru parlamentari bakoitzari ordenagailu eramangarri bat emanen dio, zeina Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoaren erabilera-arauekin bat etorritik erabili beharko baita.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Mahaiko kideei, Eledunen Batzarreko kideei eta horien ondokoei telefono edo terminal mugikor bat eta horren osagarriak emanen dizkie, zeinak azken belaunaldikoak izanen baitira.

Zortzigarrena. Legegintzaldi osoan foru parlamentari izan direnek aukera izanen dute Legebiltzarrak emandako ordenagailu eramangarriak eta telefono mugikorrak erosteko, horien erabilera-bizitzaren balioa ordainduz gero –Parlamentuko

Zerbitzu Informatikoei zehaztuko dute balio hori–; Parlamentuko Erregelamenduan aurreikusitako arazoirei batengatik parlamentari izaera legegintzaldia bukatu aitzin galtzen duten parlamentariak, berriz, gailu horiek itzuli beharko dituzte.

Bederatzigarrena. Foru parlamentariak eta Nafarroako Parlamentuko langileak beste inor ez da izanen Legebiltzarraren baliabideen eta egoitzaren erabiltzaile. Salbuespenez, Legebiltzarraren baliabideak eta egoitza erabiltzeko baimena ematen ahalko zaie talde parlamentarioen kanpo-aholkulariei, taldeen laguntzaileen absentzia luzeak betetzeko, justifikatutako arrazoiak direla medio.

Hamargarrena. Talde parlamentarioek eta foru parlamentariak arauotan ezarritakoaren aurkako jarduketarik eginez gero, Mahaia zilegi izanen du arauotan jasotako prestazioen erabilera-ahalmena ken dakien xedatzea.

Iruñean, 2017ko irailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza